



Urretxu
2013 Uztaila
119.alea

KIXO

2.orrian
SCHWARZENBÜCK
4.orrian
IKURRINA/
BANDERA
5.orrian
MEMORIA
6.orrian
LAN
HITZARMENAK
8.orrian
LUR SAILAK
12.orrian
HERRI OPERA
14.orrian
AUZOBUSA

10.orrian
**GURE
HONDAKINAK**

**materia
organikoa**



Profundizando en un



hermanamiento integral con Schwarzen

Testu guztiak euskaraz eta informazio zabalagoa:
Todos los textos en castellano e información más completa en:

urretxubiziz.com/kaixo

KAIXO
UDAL ALDIZKARIA
119.alea

Lege Gordailua: SS/678/93

Konposaketa eta diseinua: Gattiken

Erredakzioa: Jon Ormazabal eta Gattiken

Inprimaketa: ANTZA Tirada: 3.300 Ale

KAIXOk ez du derrigorrez bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

KAIXO no se identifica necesariamente con las opiniones de sus colaboradores, ni se hace responsable de las mismas.

Más información/informazio gehiago:

www.urretxubiziz.com/kaixo

Con Alfonso Cuesta como canalizador y embajador, son ya 21 los años en los que Schwarzenbrück y Urretxu han compartido experiencias, amistad, visitas, cultura...dentro de un fructífero hermanamiento entre estas dos localidades. Cultura y deporte han sido, hasta ahora, los ejes casi exclusivos de este hermanamiento pero se ha entendido que ha llegado el momento de profundizar en otros aspectos, es decir, de apostar por un hermanamiento integral y, en la actual coyuntura, gracias al programa Elkarrekin de la Diputación de Gipuzkoa, se va crear un proyecto orientado hacia el ámbito del Desarrollo Local, con un carácter más socioeconómico.

Es decir, se trata de dinamizar un hermanamiento existente desde hace 22 años, basado en una confianza y relación duradera entre dos municipios, ampliando su espectro de actuación de lo cultural y deportivo a un planteamiento integral, que abarque todo lo relacionado con el Desarrollo Local y Comarcal. Como

nimiento on nbrück

que ello pueda implicar, es decir, no tiene una misión exclusivamente comercial, sino que lo institucional, lo social, lo cultural y lo deportivo siguen siendo pilares fundamentales.

También es importante señalar que debe salvaguardarse el plano municipal, independientemente de que sea interesante la perspectiva comarcal. Quien firma y se responsabiliza del proyecto es el Ayuntamiento de Urretxu, que es quien lleva 22 años trabajando y manteniendo el hermanamiento y quien da la cara oficial, institucional y legalmente. De ahí que sea, de manera prioritaria, el Ayuntamiento de Urretxu quien deba recibir réditos y feedback.

Pero este encuentro programado no es la meta o el punto de llegada, sino que se trata de una etapa más dentro de una carrera de fondo que, aun contando con 22 años de experiencia, comienza este año en lo que a Desarrollo Local se refiere.

En este sentido, hay que tener claro que el objetivo es analizar, valorar, ponderar y dimensionar las posibilidades de futuro reales que tiene esta iniciativa, tanto desde el Ayuntamiento de Urretxu, como desde el Ayuntamiento de Schwarzenbruck, así como de los agentes socioeconómicos correspondientes en ambas zonas (empresas, comercios, asociaciones, centros educativos...).

El encuentro es un hito más este primer año, no es el objetivo. Es importante, pero no es el final del trayecto. Lo importante ha de ser conocer al «otro», a Schwarzenbruck y su comarca, qué son, qué tienen, qué quieren, si tienen interés, si se comparten objetivos...

primer paso, se va celebrar un foro en la localidad alemana, donde las Agencias de Desarrollo de ambas comarcas se reunirán con el objetivo de intercambiar información y recursos y establecer líneas de trabajo conjunto. Y es que, en ese intento de profundizar en las relaciones, se le quiere dar un enfoque más global a estas relaciones y que no sean solo estas dos localidades, sino las comarcas en las que están integradas, las que puedan alimentar y enriquecerse de las vías de comunicación ya construidas.

UGGASA, como Agencia de Desarrollo Comarcal de Urola Garaia, llevará el liderazgo en cuanto al tema empresarial, siendo protagonista en cuestiones de desarrollo e intercambio económico, uno de los pilares de este salto en el hermanamiento integral, más aún en tiempos de crisis como los actuales. Sin embargo, hay varias cuestiones que no pueden verse difuminadas. Y es que, lo que se busca es un Proyecto de Desarrollo Local y Comarcal en el sentido más amplio

Legea herri borondatearen gainetik jarri nahi denean

Banderek eta ikurrek norberarengan duten indarra edo eragina erabat da neurtezina. Hitz larriz idazten den justizia eta legea ere guztiz subjektiboak dira eta maiz egin izan dute, eta egingo dute, herri borondatearekin talka.

Udal eta foru hauteskondeez geroztik, erabatekoa izan da Madrilgo Gobernuak, EAE eta Nafarroan dituzten delegatuen bitartez, Urquijo eta Alba, Alba eta Urquijo, udaletxe abertzaleen aurka emandako jazarpena.

Legearen izenean, herri honen nortasunaren ikurraren kontrako eraso erabatekoa izan da azken hilabeteetan, Euskal Presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzen duen banderola Udaletxeetako balkoietan galarazi eta askoz arrotzagoa den Espainiako bandera inposatuz.

Bere garaian onartutako mozioen bidez, Urretxuko Udalak argi eta garbi utzi zuen bere ikurriñaren eta euskal presoek eskubideen defentsarako borondatea eta asmoa. Legearen mehatxuak, ordea, bestelakorik ezarri nahi du.

Honen aurrean honako hau adierazi nahi dugu:

Edozein delarik ekintza-errepresioa, errekerimendu edota sententzia penala, instituzio gisa defendatzen jarraituko dugu:

1.- Urretxuarrak, euskal herritarrek izanik, guri dagokigu guztiak diren nortasun ikurrei eta aldarrikapenei eustea. Ez gara espainiarrak, urretxuarrak gara, euskal herritarrek gara, eta gure herriaren eta bere etorkizunaren jabe izan nahi dugu. Ez dugu nahi gurea ez denik.

2.- Euskal presoek dagozkien eskubideen errespetuaren aldarrikapenari eusteko gure borondate politiko irmoa adierazi nahi dugu. Gure herrietako herritarren gehiengo zabalaren aldarrikapena gure egiten dugu eta aldarrikapen horiekiko gure konpromisoa mantenduko dugu.

3.- Gure nortasuna eta gure izatea ukatu nahi dutenen aurrean zutitzeko deia luzatzen diegu herritarrei. Inposaketan aurrean herri gisa erantzutea ezinbestekoa dela uste dugu. Horregatik, zentzu honetan antolatzen diren erantzun egitasmo guztietan parte hartzeko deia luzatzen dugu, garenak izan gaitezen, izan nahi dugunak izan gaitezen.

«Memorian atzera», oroimen historikoan aurrera egiteko



1937ko irailaren 19a, tropa nazionalak Urretxu eta Zumarraga askatu zuteneko 1.º urtemuga

Memorian Atzera taldeak irabazi du Urretxu eta Zumarragako udalek, memoria historikoa berreskuratzekeo prozesuetan konpromisoa harturik, egindako ikerketa bekarako deialdia. Lan honen helburua 1936. urteko altxamendu militarrek, Guda Zibilak eta frankismoak Urretxun eta Zumarragan izandako eragina ikertzea izango da.

Beka hau hainbat fasetan egingo den ikerlan zabalago baten zati bat izango da. Lan honen helburu nagusia Urretxun eta Zumarragan gerra zibila bizi izan zuten pertsonengandik, testigantzen grabazioen

eta ikerketaren bitartez, ahalik eta informazio gehien jaso eta gordetzea da. 4.000 euroko diru kopurua bideratuko da bekarra.

2013ko uztailaren 18an, aurkeztutako proiektu bakarra baloratu behar izan zuen epaimahaiak honako erabaki hau hartu zen: «Oinarrietan agertzen ziren baldintza guztiak eta ikerketa bekaren helburuak betetzen dituzenez, aho batez, erabakitzen da beka «Memorian atzera» taldeari ematea». Taldea Alex Areizagak, Idoia Agirrek, Haritz Berasategik eta Aritz Ormazabalek osatzen dute.



Udalak lan hitzarmenei eusten die

Uztailaren 7an amaitu zen berritu gabe dauden lan-hitzarmenen ultraaktibitatea eta ondorioz, espainiar Estatuko hitzarmenak aplikatzeko aukera dute, modu automatikoan enpresari eta erakundeek.

Urretxuko Udalak dena dela egoera honen aurrean, apustu berezia egin du, hitzarmen berriak sinatzen diren arte, orain arteko lan baldintzak mantentzeko, beti ere langileen interesak eta eskubideak mantentzeko borondatearekin.

Bide horretan doa Urretxuko Udalak onartutako alkatezaren ebazpena. Honen arabera, Udalak itun

bat formalizatu du langileen ordezkariekin Euskal Erakunde Publikoetako Langileen Lan-baldintzak arautzen dituen 2008-2010 urteetako akordioko xedapenak mantentzeko. Testuan nabarmentzen denez, «Akordio berria lortzen ez den bitartean, oraingoak bere indarraldiari eutsiko dio, aplikagarriak diren aurreikuspen guztietan».

Baina etorkizunera begira, Lan-hitzarmen berriak adostea da helburua eta dagoeneko badira, udalak harremana duen enprekin, akordioak sinatu dituztenak; eguneko zentro eta etxez etxeko zerbitzua kudeatzen duen Arreta S.L. esaterako. Bereziki sentisibla den sektore batean, lan-baldintzak duinak mantentzearen eta hobetzearen alde egiten du udalak. Masiboki emakumez osatutako sektorea da bizitza duinagoa lortzeko zaintza-lanen alorra, merkatu-ko ikusezin eta prekarioenetako bat .

Gipuzkoako Aldundiaren Gizarte Politikako sailak egoitzen aferan egindako proposamenaren harira, 2013rako soldataren %2,6ko igoera adostu dute eguneko zentroko langileentzat eta %1,75eko igoera etxez etxeko langileentzat. Hitzartutakoak 2013-2016 urte bitarteko denboraldia hartzen du kontutan, beti ere soldatan eta, oro har, lan-baldintzetan, egon daitezkeen aldaketak, Aldundiak eta Udalak hartuko dituzten kasuan kasuko erabakien eta akordioen menpe egongo dira.



Ondorengo taulan agertzen diren enpresetan ere, orain arteko lan hitzarmenei eutsiko zaie, hau da, ez zaie espainiar Estatuko hitzarmena ezarriko.

Grupo 1ne (Eraikinen garbiketa)

--> **Plegu berriak negoziatzen ari dira. Hitzarmena uztailaren 31an bukatuko da**

U.T.E. FCC-Serbitzu (Kale garbiketa)

--> **Salatuta eta plegu berriak negoziatzen ari dira**

Aquagest (Ura)

--> **2021ra arteko hitzarmena**

Jaso (kirol zerbitzuak)

--> **Urte bukaera arteko hitzarmena, 2014. urtetik aurrerakoa langileekin negoziatuko da**

Gesmunpal (Dirubilketa)

--> **2014ko otsailera arteko hitzarmena**

Arreta S.L. (eguneko zentrua eta etxez-etxeko laguntza)

--> **Diputazioak egindako proposamena ardatz hartuta, hitzarmen berria sinatu da**

Urretxuko lur-sailen mapa digitala osatzen



Azken mendean gure gizarteak jasan duen aldaketak eragina izan du gure lurraldea antolatzeko dugun moduan. Industrializazioarekin batera gure bailarak jendez bete dira lurralde okupazioaren aldaketa ekarriz eta lehenagoko nekazaritza bizitzatik herri bizitza batera igaroz.



Gaur egun gure inguruko mendiak denborapasarako guneak bilakatu dira gehienontzat. Herrigunetik kanpo dauden basoak eta zelaiak zeharkatzen ditugunean ez gara konturatzen hauek duten historia eta gordetzen dituzten pasadizoez. Lursail hauek, jabe batzuk izateaz gain, urteetan zehar jasandako jarduera ezberdinak gordetzen dituzte.

Urretxuko Udalak nekazaritza lur hauen mugak berreskuratzeke plangintza bat jarri du martxan. Plangintza hau baserri eta lurjabeek eginiko eskari zuzen baten ondorioa da eta dagoeneko Ezkio-ltsason egin duten lanaren esperientziaren ezagutzarekin lantzen ari da.

Proiektu honen helburua nekazal lur horien mugak berreskuratzea da, modu fisiko eta digital batean, hau da, lehenagoko mugarri horiek berpiztea, iraganean izan duten balioa emateko eta gerora begira modu digitalean jasota uzteko.

Muga hauetako asko galduta daude edota administrazioak dituen datuetan oker agertzen dira. Hori dela eta, plangintza honen lehen pausoa baseritarrei eta lur jabeei euren datuak baieztatzeke aukera ematea izan da. Lur jabe bakoitzak bere inguruan dauzkan lur jabeekin aztertu beharko du datuak zuzenak edo okerrak diren eta, beharrezkoa bada, adostasun batera iritsiz mugak zuzendu beharko dituzte.

Informazio hau berreskuratzeak belaunaldiz-belaunaldi galtzen den informazio bat berreskuratzea ekarriko du, eta bide batez, lursail ezberdinen jabeen arteko harremana indartuko du. Honekin batera, mugarriak dauden ingurua garbituko dute eta, beharra izanez gero, berriak sartuko dituzte.

Behin udalak muga guztien informazio zehatza jasotzen duenean, proiektuaren bigarren faseari ekingo diote.

Bestalde, muga fisikoak era digitalean ere jasoko dira. Biga-



Argazkia: J. L. Garmendia

rrer puntu hau oso garrantzitsua da bizi garen garaian, modu erraz eta azkar batean jaso ahal izango ditugulako muga horiek plano batean, behar dugun beste edozein informazioarekin alderatzeko. Modu berean, katastroan agertzen den informazioa berritu ahal da, oker dagoen informazioak eman ditzakeen buruhausteak ekidinez.

Garrantzitsua da garai berriek ematen dizkiguten teknolo-

gia berriak iraganeko tresnekin nahastea, eta proiektu hau horrelako kasu bat da. Gure ondarean egotea merezi duten mugarri fisiko guztiak berreskuratu behar ditugu, eta aldi berean, mugarri hauek tresna modernoekin uztartu, hala behar dituen teknikari orok erraztasunez eta dagokion bermeaz erabili ditzan datu hauek. Azken finean, zertarako balio digu mundu digital batean bizitzeak eta geroz eta tresna garatu-agoak edukitzeak, hauek islatzen duten informazioa okerrabada?

Pablo Irizar

Argazkiak: www.



Edukiontzi marroia erabilera Urretxun



Sasietaren itxierak hondakinen inguruan gogoeta egiteko beharra ireki du Urretxun ere. Hainbat herri dira jada hondakin gutxiago sortzeari eta gehiago birziklatzeari begira pausuak ematen ari direnak.

Ildo horretan, 2012 urteko ekainaren 26an Urretxuko Udal Gobernuak bere konpromiso publikoa agertu zuen zero zabor filosofiarekin. Hondakinen gaia estrategikotzat jo zuten Urretxuko talde politiko ezberdinek.

Aurkezpen horretan udal gobernuak argi utzi zuen bere helburua zero zabor filosofia garatzea zela. Alkatearen hitzak «zaborrik onena, sortzen ez dena» oinarri hartuta, urte eta erdiko eperako (2014ko abendura bitartean) ekintza desberdinak planteatu ziren, helburua beti ere ahalik eta zabor gutxien sortzea eta sortzen den horretatik ahalik eta gehien birziklatzea izanik.

Autokonposta eta auzokonposta bultzatzea zen horietako ekintza bat. Autokonpostari dagokionez, 2012ko apirilera arte 31 etxebizitzetan jarri zuten autokonpostaia egiteko gailua. Orduetik, 22 etxebizitza gehiagotan jarri dute. Auzokonpostaiari dagokionez, berriz, urte bete honetan udal gobernuak ez da gai izan auzo batean ere horrelako ekimenik martxan jartzeko. Erronka horri helduko dio epe laburrean.

Hondakin gutxiago sortzeko saiakera honetan, sortzaile bereziei tokian tokiko hondakinen kudeaketa zerbitzua planteatu zitzaion eta BM eta Eroskiren kasuan, akordio batera iritsi zen. Sortzen den hondakinetik ahalik eta gehien birziklatzeari dagokionez,

Partaidetza portzentaiak



Edukiontzia marroieko giltza hartu duten familien batza bestekoa



Jasotzen den hondakin kopurutik, zenbat den organikoa (urdinez) eta zenbat errefusa (gorriz).

berriz, Urretxuko Udalbatzak bost edukiontzia erabiltzen dituen bilketa sistema ezartzea erabaki zuen, bosgarren edukiontzia, organikoa jasotzekoa, 2012ko ekainean aurkeztuz.

Edukiontzia marroia jarri zenetik urtebete igarota, udal gobernuak hondakin bilketaren eta bosgarren edukiontzia erabileraren gaineko balorazioa egin du. Sasieta Urretxuko bilketa sistemak eman dituen datuen garapena biltzen duen txostena osatu du, eta horretan oinarritu da udal gobernu bere irakurketa egiteko:



Atzera begiratzuz, aurrera jarraitzeko

«Partaidetza datuak oso onak izan ziren ondoko herrietako datuekin alderatuta. Emaitza onak aurreikusten zituzten. Zoriontzekoa iruditu zaigu urretxuarrek erakutsi duten borondatea. Bilketa datuekin hasierako asmoak errealitate bihurtuko zirela baieztatzea falta zitzaigun.

Urtebete honetan bi pisaketa desberdin egin dira: Bata 2012ko urrian eta bestea 2013ko ekainean. Pisaketa datu hauetatik udal gobernuak ateratako ondorioak ondorengoak dira:

1- Izen emate kopurua izugarria izan zela eta jendearen borondate ona zoriondu behar dela. Hala ere, borondateak ez gaituela inora eramaten eta izen emate portzentai horrekin bilketa datuak beste batzuk izan behar ziren.

2- Urretxuko 2.598 familiatik, 1.723k eman zuten

izena eta horren arabera familia bakoitzak gutxi gora behera 193(*) kilo sortzen dituela aurreikusiz, astean 15.000 kilo organiko baino gehiago bildu beharko lirateke. Azken datuek 6.200 kilo biltzen dela erakusten dute.

3- Iaz Udal gobernuak 2014 bukaerarako planteatzen zuten % 50eko birziklatze tasa ez dugu urruti. Hala ere, urtean zehar bilketak jarraitu duen bidea ikusita, neurri berriak hartzeko beharra ikusten dugu. Urretxuko gaikako bilketa tasa %43koa da. Europak 2016 urterako eskatzen duen %65etik urrun gaude.

4- 2012ko urria eta 2013ko ekaina arteko datuak ikusita, gehien kezkatzen gaituena aste batetik besterako neurketan 1.220 kiloko aldea dagoela da. Hondakin gutxiago sortu ordez, gehiago sortzen ari gara.»

(*Sasieta Mankomunitatearentzako ikerketa bat egin duen Spora enpresaren datuen arabera)



Herri Opera, herritik herriarentzat



Urretxuko eta Zumarragako kultur eragileak eta norbana-koak ikuskizun bateratu bat prestatzen ari dira. Herri Opera deitu diote, herritik sortu zen antzerki musikatuaren formula herriari itzuliz.

Gorka Hermosa soinu-jolea ari da koordinatzaile lanetan eta Jon Plazaola aktorea da gidoilaria. Gorka Azkaratek herriko taldeen koordinazioa eramango du. Operak kontatuko duen istorioa 2383. urteko Urretxun eta Zumarragan kokatzen da.

Duela lau zapabost hilabete sortu zen ideia, Hermosak Urretxuko kultur teknikariei bere gogoeta baten berri ematean. Pelota biraka hasi zen, eta Herri Opera jada gelditu ezin den errealitatea da. Herri-Opera proiektua Zumarraga eta Urretxuko kultur munduko jendea elkarlanean biltzeko intentzior sortzen da. Urtero egun jakin batean egiteko bi ordu inguruko antzezpe-

na izango litzateke, non herriko artista batek eginiko gidoi bat jarraituz, aktoreek eszena gainean antzez-tuko duten eta tartekaturik herriko musika taldeek aktuazioak egingo dituzten, proiektzio, dantzari eta argi disenuaz osaturiko eszenografia batekin.

Proiektua 2014 San Juan aldera gauzatuko litzateke eta bi herriotako plaza bat izango luke eskenatoki moduan. Partehartzaileen artean herriko musika taldeak (abesbatzak, bandak, txistulariak, txalapartariak, dultzaineroak, trikitilariak, musika eskolako orkestra, rock abeslari edo taldeak...) eta norbanakoak (bertsolariak, antzerkilariak, idazleak,

margolariak, argazkilariak, bideo egileak, atrezzo egileak, eszenografoak, argi diseinadoreak, diseinadore grafikoak...) egongo dira.

Proiektuak bi helburu nagusi ditu: herriko kultur ondareari duen balioa aitortzea eta herriko kultur arloko eragileak eta norbanakoak elkarlanera biltzea.

Facebooken «Urretxu Zumarragako Artea» orria sortu dute, proiektuari talde askoren babesa lortzeko balio izan diona. Facebookeko sareak herriotako artista kopurua ezagutzeko ere balio izan die sustatzaileei, elkarren berri izateko, alegia.

Ikusten ez den lan asko eskatzen duen proiektua da, eta gauzak zehazten joan ahala joango dira horien berri ematen. Oraingoz 281 eta 315 izeneko bi protagonisten izenak aurreratu daitezke: Barbara Rivas eta Josune Goenaga. Haei Joseba Apaolaza aktorea ere batuko zaie, proiektuari baiezkua eman baitio.



2383. urteko Urretxu


Jon Plazaola da gidoilaria. Irudimen oparoko umore sortzailea, gidoilari lanetan aritu da azkenaldian. Antzerki obrak idatzi ditu, Madrilgo antzeztokietan denbora luzez egon direnak, eta film laburrak ere zuzendu ditu. Horietako bat Txinako jaialdi batera gonbidatu zuten gainera. Orain gutxi Granadan sari bat ere irabazi du, eta hori, bere lanen printza bat soilik da.

Istoria hau izango da: 2383 urtean, VI. mundu gerraren ostean, planeta osoa gobernu bakar baten pean dago eta munduak bere kultur aniztasuna galdu du. Testuinguru horretan,

gure herriek beren izenak galdu dituzte aspaldian eta GI-631 izena hartu dute, errepide baten moduan. Bertako bi gazte, 281 eta 315 zenbakiak, Irimora igo dira, zerbait gertatzen zaie eta 1383 urtean azalduko dira, baina ez bakarrik. Euren atzetik Herri Operako «maltzurra» ere joango da.

Gure bi herrietako historian zehar bidaia batzuk egingo dituzte gazteek eta bidean gure bi herrien historia eta kultura ezagutuko dituzte, euren garaira bueltatzeko modua aurkitzen saiatzen diren bitartean... eta konturatuko dira zein garrantzitsuak, sakonak eta ezinbestekoak diren gaur egun gure herrietan ditugun kultura eta baloreak.

AUZOBUSA, auzotarrak eta autobusa




Irailetik aurrera Urretxuko Udalak herri barruko autobus zerbitzua jarriko du martxan. Urretxuko auzoetarako irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzea da proiektu honen asmo nagusia.

Iraillean abiaraziko dutena proba-pilotu bat da. Abendura bitartean iraungo du. Tarte honetan, herritarrek zerbitzu berriaz hausnartu dezaten nahi du Udalak. Tarte hori igarota, herritarrei galdetuko zaie, autobus zerbitzuaz iritzia emateko aukera eskainiz. Beharrezkoa al den, eta mantentzekotan, zerbitzuak zein ezaugarri izan behar dituen erabaki nahi du horrela Udalak, herritarren iritzia entzun ondoren.

Hiru helburu ditu zerbitzu berriak. Batetik, irisgarritasun arazoak dituzten auzoak herrigunearekin komunikatzea eta herri-tarrak batetik bestera joan ahal izatea. Bigarrenik herritarrei Santa Barbarako aisilekura igotzeko edo bertatik jaisteko aukera ematea kotxea erabili gabe. Udaran igerilekura gerturatzeko aukera ere eskainiko du. Hirugarrenik, autobus zerbitzuaren beste helburu garrantzitsu bat osasun zentroa eta Zumarragako geltoki intermodalarekin lotura zuzena izatea da. Zerbitzua, plataformadun 17 eserlekuko mikrobus baten bidez egingo litzateke.





Probarako hilabeteetan, autobusak egunean bost bidaia egingo ditu. Joaneke hiru bidaia egingo ditu eta beste bi kontrako norabidean.

Ordutegiari dagokionez, 07:40ean, 10:05ean eta 15:45ean aterako da autobusa Iparragirre kaleko gurekutik, eta 12:05ean eta 18:05ean, berriz, Joxe Mari Lasa plazakotik.

Autobus zerbitzu honek lanegunetan funtzionatuko du, eta prezioak ondorengoak dira:

- 70 urtetik gorako urretxuar guztientzako zerbitzua doakoa izango da.
- Mugikortasunari eragiten dion ezgaitasuna duten pertsonentzat doako zerbitzua izango da.
- 5 urtetik beherako umeentzat zerbitzua doakoa izango da.
- Gainontzeko herritarrek 10 bidaiako bonoak erosi ahalko dituzte 10 euroko prezioan.

Abuztuaren 21ean irekiko dute bonoak eta txartelak eskuratzeko aukera udaletxean. 70 urtetik gorakoek eta ezgaitasuna duten herritarrek Gizarte Zerbitzuetara jo beharko dute euren txartelak eskuratzeko. Bonoak udaletxeko Harrera Bulegoan salduko dira, 10 bidaiakoak.

Auzoetarako irisgarritasuna hobetzeko zerbitzu berriak abendura arte funtzionatuko du lehen fasean. Amaiera aldera, udalak parte hartze prozesu bat abiaraziko du, horretarako herrian jarri berri diren buzoiak eta urretxubiziz.com webgunea erabiliz, herritarrek autobus zerbitzuaren inguruko iritzia eman dezaten, zerbitzuaren beharrak eta gabeziak identifikatuz. Jasotako ekarpenekin hausnarketa egingo du Udalak, zerbitzuak jarraitu behar al duen, eta jarraituko badu, zein baldintzatan egin behar duen erabakitzeko.

ABUZTUKO ORDUTEGIAK



Kultur Etxea eta bertako zerbitzuak (Museoa barne)

Irekita publikoari **09:00 – 14:00**
abuztuak 1, 2, 5, 6, 7,
26, 27, 28, 29 eta 30.

Aldiri kiroldegia

Itxita abuztuaren 3tik 19ra eta 24-25.
abuztuak 1,2,20,21,22 eta 23
9:00- 13:00/17:00-21:00
abuztuak 26tik 30era; **8:00-22:00**
abuztuak 30; **9:00- 14:00/16:00-20:00**

Pagoeta Igerilekua

Abuztu osoa irekita
Ordutegia: **11:00-20:00**

Ederrena Pilotalekua

Abuztu osoa irekita
10:00- 15:00/17:00-22:00

Udaltzaingoa:

betiko moduan,
asteaz zehar: **07:00-21:00**
asteburuetan: **09:00-21:00**

Harrera bulegoa:

astelehenetik ostiralera.
Ordutegia **07:30-15:00**

Gizarte zerbitzua:

itxita abuztuaren 12tik 18ra.
Ordutegia: **08:00-14:00**

Hirigintza:

itxita abuztuaren 5etik 25era.
Ordutegia: **08:00-15:00**

Idazkaritza:

itxita abuztuaren 5etik 25era.
Ordutegia: **08:00-15:00**

Ogasuna:

itxita abuztuaren 5etik 25era.
Ordutegia: **08:00-15:00**

Abuztu osoan Alkatetza herritarren eskura egongo da.
Harreran txanda eskatu, mila esker!

www.urretxubiziz.com